

# EUSKERAZAINTZA ALDIZKARIAK

## LAN SAKONAK ETA LUZEAK

Beste leku baten esan dogu non, zelan eta zergaitik sortu zan Euskerazaintza Euskerearen Erri-Akademia, Kardaberaz Bazkunaren ondoren lez.

Orain Akademi onek argitaratzen dauan eta izen bardiña daroan EUSKERAZAINTZA ALDIZKARIA aurkeztu gura dogu.

Urtean lau bider-inguru argitaratzen dogu, naizta sarritan ekonomi-arazoakaitik lau baiño gitxiago izan 60´tik 100 orrialdera izaten dauz.

Ez da Euskerazaleak Alkartek argitaratzen dauan ZER´en maillakoa. ZER erri zearentzat asmatua da eta gai lauak artzen dauz, errez irakurteari begiratuta, EUSKERAZAINTZA´k, ostera, gai sakonagoak, zabalagoak eta luzeagoak artzen dauz.

Aldizkari onen gaiak, al dala, euskerea “garbitzeko, sendotzeko eta argitzeko” izaten dira eta bide orretatik eltzen gara elertiaren edestiaren bidera, baiña Euskalerrriaren edertia eta beste euskal-gai batzuk be artzen dauz.

ZER geienbat Bizkai´rako eta bizkaieraz izaten da, EUSKERAZAINTZA; ostera, gehiago zabaltzen da Gipuzkoa´ra eta beste lurralde batzutara.

Akademiak illero egiten dau batzarra eta antxe banatzen dira gure lanak eta zeregiñak, aldizkari au argitaratzea be bai.

Olako gai sakonak idazteko gai diran idazleak asko izan doguz, baiña aspaldion urritu egin dira. Ainbat dira izan be aspaldiko urteetan Aitaren etxera joan jakuzanak: Pedro Puxana, Jaime Kerexeta, Lino Akesolo, Anes Arrinda, Santi Onaindia, Augustin Zubikarai, Bixente Latiegi eta Iñaki Zubiri. Baiña etorri jakuz barriak be, esaterako oraintsu Iker Joseba Laka Guenaga. Onek beronen bizitza osoan aztertu dau euskerearen izen-ordeai buruzko azterketa eta argitaratzen dauzan idaz-lan zeatzak eta egokiak arrituta izten gaitue. Lan benetan txalogarriak dira billaketa -munduan. Eta lendik daukaguzan ikertzailleak be jarraitzen dabe eta uste dogu lan oneri jarraitzeko era egokian gagozela.

Bai ZER eta bai EUSKERAZAINTZA liburututa daukaguz eta Euskerazaleak Alkartearen etxean ikusi daitekez. Antxe dago, baita, lenagokoa dan gure AGUR aldizkaria be liburututa. Dana ikusi daikeuzue Bilbao´n, Colon de Larreategi kaleko 14n. atean, 2n. etxe-maillan, eskuma-aldean.

Beioa gure agur beroa gure web orri onetara datozen ikertzaille guztiai.